

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Martutene

Etxe honek bere izena eman dio Urumea ibarreko inguru guzti honi, hainbat auzune bere baitan hartzen dituelarik. Orain dela 125 urte Amara auzoko baserri- etxe xume bat zen oraindik. Izen gaskoina darama Donostiako beste hainbat- tek bezala: «Martutene» = «Martut»-en etxea. Baserri izatetik ostatu-taberna ezagun bat izatera pasa zen eta gero ere, inguruan zegoen estanko bakarra. Bere ondoan zubi bat erai- ki zen, Urumeako bidea Alzakoa zen barrueta aldera pasatuz.

Honela gure etxe hau ospe haundikoa egin zen bertan «bilerak» (dantzal- diak) egiten zirelarik. Erromeria egiten zen urte- ro bertan Ubako eta Mese- deetako Amen egunez (Irailak 24). Urte oro egun horretan euria egiten zuen,

festa urez pasatua geldit- zen zelarrik, honela gure «Estankoa» «Putxutxulo» izengoitiarekin gelditu zen, eta Ubako eta Mese- deetako Amek «Putxutxu- loko Amabirjin» bihurtu ziren, beraz, «Putxutxulo- ko Amabirjiñetan» izaten zen erromeria Martutenen.



JOSU TELLABIDE

Roxali

## Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposatua



### Begi urdin bat


Famaren hotsak goituzten du  
merezki duen herria.  
Zeru txiki bat dirudiena  
hala da gustagarria.  
Lehengoko zaharra, txukun-txukuna,  
eder, alaia, berria.  
Ez zaigu penik behin ere joango  
lehenengo ez etorria.

Begi urdin bat begira dago  
algaraz lehio batetik.  
Beste beltzeran tentatzailea  
zeletan berriz bestetik.  
Zoramen hauek maite ditugu  
bihotzen erdi-erditik.  
Ez gera joango horiek lagata  
gehiago Donostiatik.

Hungariako Kaldereroen Konparsan kantatzen da. Hitzak Bitoriano Iraolak (1844-1919) sortu zituen. San Juaneko Pasaian jaio arren, Donostian bizi izan zen Iraola eta hamaika liburu, eta antzerki lan labur idatzi zuen. Musika Raimundo Sarriegirena du. Hemen nahikoa ortografia batuz azaltzen bada ere, donostiar moduan ebaki behar da: diruriyena, txeletan, beltzeran, ...

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa